



PRENTSARAKO OHARRA

## **BOST KONTINENTEETAKO 162.675 TURISTAK BISITATU EBEN GERNIKAKO BATZARRETXEAN 2019AN, AURREKO URTEAN BAINO %7,2 GEHIAGOK**

- **Batzarretxea Bizkaiko turismoaren erreferentzia moduan finkatu da, eta gora egin dau Ameriketatik, Asiatik, Ozeaniatik eta Afrikatik etorritako turista kopuruak.**
- **15.000 persona baino gehiagok hartu eben parte Enkarterriko Museoan urtarriletik abendura luzatu zan kultur eskaintzan; partaide kopurua 2018an baino %15 handiagoa izan zan.**

*(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 8an).*- Gernikako Batzarretxeak, euskal herriaren bakearen eta askatasunaren ikurrak, gero eta bisitari gehiago erakarten ditu urtero. 2019an, bost kontinenteetatik etorritako 162.675 bisitari hurbildu ziran Gernikaraino, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza hori ezagutzeko, hau da, 2018an baino %7,2 gehiago, 11.037 bisitari gehiago, hain zuzen be. 2016ko datuak alderatuta, igaz bisitari kopuruak %15,7 egin eban gora, 2016ko 140.510 bisitarietatik igazko urtarriletik abendura etorri ziren 162.675era pasauz. Kopuru horreek Bizkaiko turismoaren erreferentzia moduan finkatzen dabe Batzarretxea.

Jatorriari jagokonez, Estadia izan da, igaz be, kopuru osoan bisitari gehien jarri dituana, 82.091. Estaduko zerrendaren buru Katalunia (19.123), Madril (15.286) eta Andaluzia (11.812) dagoz. Euskal Herritik 29.974 persona gerturatu ziran Batzarretxera, 10etik 6 Bizkaitik (19.045 bisitari).

Europa izan da, beste urte batez, Bizkaiko Batzarren egoitzara sartu diran bisitari gehien jatorrizko kontinentea. Europako herrialdeetatik 33.828 bisitari heldu ziran 2019an. 2018an gainditu zan lehenengoz 30.000 biztanleren kopurua Gernikako Batzarretxean, eta joera horrek gorantz jarraitu eban igaz be. Herrialdeei jagokonez, Frantzia, Alemania eta Italia dira Europako bisitari gehien ekarri ebezan herrialdeak: 11.992, 7.148 eta 2.958, hurrenez hurren.

Halanda be, azpimarragarria da urruneko kontinenteetatik, Ameriketatik, Afrikatik, Asiatik eta Ozeaniatik etorritako turista kopuruak erakutsi dauen gorakadea. Gernikako egoitza historikoa eta bertako ikur ezagunena, Gernikako Arbolea, bisitatu eben.

Ameriketatik, 2019an 12.215 bisitari heldu ziran, eta 2018an 9.331. Asiatik, 3.966 turista 2019an, 2018an baino %35,3 gehiago. 2018an Ozeaniatik 280 persona etorri baziran, 2019an kopurua 471ra igon zan. Afrikako herrialdeetatik igaz 130 bisitari heldu ziran, eta 2018an 84. Holan, bisitari gehien ekarri eben beste latitude batzuetako herrialdeak Estatu Batuak (7.222), Japonia (2.234), Australia (411) edo Hego Afrika (54) izan ziran.

Gernikako Batzarretxeak dobako bisitak eskaintzen ditu urte osoan, astelehenetik domekara. Neguko ordutegia 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara da, eta udakoa 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Historiaz beteta dagon eta Gernikako Arbolea jasoten dauen Batzarretxea urte osoan bisitatu leike –Osokoak egiten diran egunetan izan ezik– eta, ganera, ibilbide gidauak be eskaintzen ditu. Informaziorako telefono zenbakia 94 625 11 38 da, eta bisitak esteka honen bitartez erreserbatu leikez: [http://www.jjggbizkaia.eus/home2/sedes/solicitud\\_visitas.asp](http://www.jjggbizkaia.eus/home2/sedes/solicitud_visitas.asp).

### **Enkarerrietako Museoa**

Sopuertan dagon Abellanedako Batzarretxea da kultura eta turismo jomuga moduan finkatzen ari dan Bizkaiko Batzar Nagusien beste egoitzetako bat. Enkarerriko eskualdeko kontzejuetako eta haranetako ordezkariak biltzeko lekua izandakoak, urte osoan zehar erakusketak, eta adin guztietarako kultur jarduerak eta tailer didaktikoak emoten dituan Enkarerrietako Museoa jasoten dau gaur egun.

2019an, 15.003 personak hartu eben parte Enkarerrietako Museoaren kultur eskaintzan, hau da, partaide kopuruak %15 baino gehiago egin eban gora 2018agaz alderatuta.

Hazkunde horren errazoiak, “Enkarerri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketak izan eban bisitari kopuru handia, aurrera eroandako kultur jarduera eskaintza handiagoa, eta udan lekuaren historia ezagutzera museora hurbildu zan persona kopuruaren hazkundea dira.

Azpirarragarria da Enkarerriko arkitektura garaikidearen eta arkeologiaren ganean egindako kultur ibilbideek izan daben arrakastea. Ganera, jarduera pedagogikoak egiteko eskaini ziren plazen %100 bete egin zan. 9.100 ikaslek hartu dabe parte egin diran tailerretan eta bisitetan.

Bakarka joandako bisitarien jatorriari jagokonez, %70 Bizkaikoak dira, %14 Euskadikoak, %12 Estadukoak eta %4 Europako eta munduko ganerako lekuetakoak. Bizkaiko bisitari kopurua aurreko urtean baino %18 handiagoa izan da 2019an.

Enkarerrietako Museoa 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egoten da zabalik martitzenetik zapatara, eta 10:00etatik 14:00etara domeketan eta jaiegunetan. Udan, arratsaldeko ordutegia aldatu egiten da, eta 17:00etatik 19:00etara zabaltzen da. [www.enkarerrimuseoa.eus](http://www.enkarerrimuseoa.eus) webgunetik, urte osoan zehar antolatzen dituan kultur jardueren eta ondarea ezagutuazotera zuzendutakoen ganeko informazioa eta horreetan parte hartzeko formularioak eskaintzen ditu.

## **Batzarretik Batzarrera**

2019an, Bizkaiko Batzar Nagusiek lehen aldiz antolatu dabe “Batzarretik Batzarrera” ekimena, lurraldeko Batzarretxeak bisitetako programea. 16 eta 80 urte arteko ia 250 personak hartu dabe parte Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzen iragana eta orainaldia ezagutuazoteko aukerea emon dauen programan: Bilboko administrazio egoitzea eta Gernikako, Abellanedako eta Gerediagako Batzarretxeak. Dobako zazpi bisita gidauak urriaren 20tik abenduaren 15era luzatu ziran.

Bizkaiko Batzar Nagusiak “Batzarretik Batzarrera” programaren bigarren edizinoa antolatzen dabilz beharrean, herritarren aldetik jaso dauen erantzun bikaina ikusi ostean. Izan be, daborduko 80 persona dagoz itxaron zerrendan, gure lurraldeko Batzarretxeen egoitzak eta funtzionamentu historikoa eta gaur egungoa hobeto ezagutzeko gogoz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **UN TOTAL DE 162.675 TURISTAS DE LOS CINCO CONTINENTES VISITARON LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA EN 2019, UN 7,2% MÁS QUE EL AÑO ANTERIOR**

- **La Casa de Juntas se consolida como referencia turística en Bizkaia y aumenta el número de turistas procedentes de América, Asia, Oceanía y África.**
- **Más de 15.000 personas participaron de la oferta cultural de enero a diciembre del Museo de las Encartaciones, que aumentó su público un 15% respecto a 2018.**

*(Bilbao, a 8 de enero de 2020).*- La Casa de Juntas de Gernika, símbolo de paz y libertad del pueblo vasco, atrae cada año a más visitantes. En 2019, un total de 162.675 procedentes de los cinco continentes se acercaron hasta Gernika a conocer esta sede de las Juntas Generales de Bizkaia, lo que supone un 7,2% más que en 2018, con 11.037 visitantes más. Comparadas con 2016, el número de visitantes se incrementó el año pasado un 15,7%, pasando de los 140.510 de 2016 a los 162.675 registrados entre enero y diciembre del año pasado. Estas cifras consolidan a la Casa de Juntas como una referencia turística en Bizkaia.

Atendiendo a la procedencia, el Estado sigue siendo, con 82.091, el que más visitantes aporta a la cifra total, en un listado encabezado por Cataluña (19.123), Madrid (15.286) y Andalucía (11.812). De Euskal Herria se acercaron hasta la Casa de Juntas un total de 29.974 personas, 6 de cada 10 procedentes de Bizkaia (19.045 visitantes).

Europa ha sido, un año más, el continente que más destaca en el cómputo de entradas a la sede parlamentaria vizcaína. De países europeos llegaron 33.828 visitantes en 2019. Por primera vez en 2018 se superó la barrera de los 30.000 visitantes a la Casa de Juntas de Gernika, una tendencia que ha seguido creciendo el año pasado. Por países, Francia, Alemania e Italia son los que más visitantes europeos aportaron: 11.992, 7.148 y 2.958, respectivamente.

Sin embargo, destaca el alza del número de turistas procedentes de continentes lejanos como América, África, Asia y Oceanía que visitaron la histórica sede de Gernika y su emblema más conocido: el Árbol de Gernika.

Del continente americano llegaron 12.215 visitantes en 2019, frente a los 9.331 de 2018. De Asia, 3.966 turistas en 2019, lo que supone un 35,3% más que en 2018. Si de Oceanía visitaron la Casa de Juntas un total de 280 personas, en 2019 la cifra aumentó hasta las 471. De países africanos llegaron 130 visitantes el año pasado, frente a los 84 de 2018. En este sentido, los países de otras latitudes que más visitantes aportan son EE UU (7.222), Japón (2.234), Australia (411) o Sudáfrica (54).

La Casa de Juntas de Gernika ofrece durante todo el año visitas gratuitas de lunes a domingo. El horario de invierno es de 10 a 14 horas y de 16 a 18 horas y el horario de verano es de 10 a 14 horas y de 16 a 19 horas. Esta Casa de Juntas llena de historia y junto a la que crece el Árbol de Gernika se puede visitar todos los días –excepto los días en que se celebran Plenos- y ofrece además recorridos guiados. El teléfono de información es 94 625 11 38 y las visitas se pueden reservar a través del enlace: [http://www.ijggbizkaia.eus/home2/sedes/solicitud\\_visitas.asp](http://www.ijggbizkaia.eus/home2/sedes/solicitud_visitas.asp).

### **Museo de las Encartaciones**

La Casa de Juntas de Abellaneda en Sopuerta es otra de las sedes de las Juntas Generales de Bizkaia que se consolida como destino cultural y turístico. Este antiguo lugar de reunión de representantes de los concejos y valles de la comarca encartada acoge hoy el Museo de las Encartaciones, que ofrece durante todo el año exposiciones, actividades culturales y talleres didácticos para todas las edades.

En 2019, un total de 15.003 personas participaron de la oferta cultural del Museo de las Encartaciones, lo que supone un aumento de público de más de un 15% con respecto al año 2018.

Este incremento se debe a la alta afluencia de visitantes a la exposición “Encartaciones 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”, a la mayor oferta de actividades culturales desarrolladas y al aumento de personas que durante la época estival se acercaron al museo a conocer la historia del lugar.

Destaca el éxito que han tenido los itinerarios culturales realizados sobre arquitectura contemporánea de Las Encartaciones y sobre arqueología. Además, se llenaron el 100% de las plazas ofertadas para realizar actividades pedagógicas. Un total de 9.100 escolares han participado en los diferentes talleres y visitas.

En cuanto a la procedencia de visitantes individuales, el 70 % son de Bizkaia, 14% de Euskadi, un 12 % del Estado y un 4% de Europa y resto del mundo. El número de visitantes de Bizkaia ha aumentado en 2019 un 18% con respecto al año anterior.

El Museo de las Encartaciones está abierto de martes a sábado de 10 a 14 horas y de 16 a 18 horas y domingos y festivos, de 10 a 14 horas. En los meses de verano el horario por la tarde cambia y abre de 17 a 19 horas. Desde su página web, [www.enkarterrimuseoa.eus](http://www.enkarterrimuseoa.eus), ofrece información y formularios de inscripción a las diferentes actividades culturales y de difusión del patrimonio que organiza cada año.

## **Batzarretik Batzarrera**

En 2019, las Juntas Generales de Bizkaia han organizado por primera vez “Batzarretik Batzarrera”, un programa de visitas a las Casas de Juntas del territorio. Cerca de 250 personas de entre 16 y 80 años participaron en este programa que ha permitido difundir el pasado y presente de las sedes de las Juntas Generales de Bizkaia: sede administrativa de Bilbao y las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga. Las siete visitas gratuitas y guiadas se realizaron entre el 20 de octubre y el 15 de diciembre.

Tras la buena respuesta de la ciudadanía, las Juntas Generales de Bizkaia ya están trabajando en la segunda edición del programa “Batzarretik Batzarrera” que se celebrará este año. De hecho, ya hay 80 personas en lista de espera deseosas de conocer mejor el funcionamiento histórico y actual de las Casas de Juntas de nuestro territorio.